



Rock and roll basatia

ZAKILLERS! Berako taldea SixtySexers-en “anaia txikia” modukoa da, taldekideen beraien hitzetan: “Anaia bihurri eta kaskagogorra, ZaKillers! ganberrismoa da, ganberrismo ilustratua”.

Hala da, bai. Izan ere, SixtySexers taldeko Julen Irazokik (gitarra), Xiker Salaberriak (baxua) eta Mikel Larratxek (ahotsa) Inaxio Agara bateria jolearekin –SixtySexers taldeko sortzaile eta kide izana– martxan jarri duten taldea da ZaKillers!.

“Hasieran gure asmoa rock adarjotzaile moduko bat egitea zen, oso erritmikoa, hasierako Danko Jones-en estilokoa, baina pixkanaka-pixkanaka kantuek gordintasuna eta abiadura eskatzen zuten, Poison Idea eta Misfits taldeen erara. SixtySexersen azken joeratik aldendu nahi genuen, hainbat giro iradokitzen zituzten kantu luzeak egiten baikenituen, baita psikodelikoak ere. ZaKillers! makarrarena egiteko aitzakia da: kantu laburrak, apaindurarik gabe, eta zuzenak”.

Mikel Larratxeren hitzak dira horiek, eta hark esaten duen horixe egiten dute: rock and roll basatia, punk-rock and rolla, rock bizia eta makarra. Doinu gordinak, indartsuak, azkarrak eta zuzenak jotzen dituzte, gehiegizko apaingarririk gabe.

Zazpi kantu bildu dituzte beren lehen diskora, eta kantu horietan azpimarragarria da Mikel abeslari eta frontmanaren nortasun handia, eta gainerako taldekideen trebezia haien musika tresnak jotzeko garaian.

ZaKillers! taldekoek 2011 eta 2012 urteetan landu eta ondu zituzten kantuak Berako Aduanara, eta aurtengo apirilaren kaleratu dute beren lehen lana. Inigo Irazokik grabazioa eta nahasketak Sorotan Babies tal-



Hyena
Zakillers!

Autoekoizpena, 2013

dearen lokalean, Saran, egin ditu, eta Jonan Ordorikak masterizazioa, Azkarateko

Mamia Mastering estudioan. Zenbait kantutan Joseba B. Lenoir aritu da produktore lanak egiten, eta taldekideek Inigo Irazokiren laguntza izan dute diskoa erregistratzerako garaian.

Halaber, grabazio saioetan, Joseba B. Lenoir bera gitarra jole kosmikoa izan da, eta Cleve/TheCapaces, berriz, gitarra hiltzailea.

Ekoizpen lana ongi egina dago. Kantuak ozen entzuten dira. Soinua zuzena eta zehatza da. Kantuen erritmora, burua eta zangoak berehala mugitzen hasten zaizkigu. Bolumena igota, kantuen indarrak eta bizitasunaz gozatzen dugu.

Aurkezpena eta diseinu lana ere aipagarriak dira, edukia ilustratzeko ezin egokiagoa baita.

Jendaurreko emanaldi batean ikusteko moduko taldea da ZaKillers!. Beren saioak ikaragarriak izango dira. Hasi besterik ez dira egin, baina, dudarik gabe, zeresana emango duen taldea izango da. ■

Joxi Ubeda

